

# 1931

## Lekeitioko San Pedropeko...



Lekeitioko Sanpedropeko  
iturriaren aurrian,  
hamalau atso despiskan dao  
Askatasun baporian

Prieto dogu alkate eta  
Agustintxu da kontzejal,  
Juan eta Antolin aguazil diraz,  
Rebeka dauke kartzelan.

Ez dot esango, bai dot esango,  
ez naiz ixilik eongo,  
Lekeitioko neska gaztiak  
ez diraz monja juango

Bai dot esango, ez dot esango,  
ez naiz ixilik eongo,  
Lekeitioko mutil gaztiak  
ez diraz praile juango



Markuesen txistea

## SANPEDROPEKO KANTA

Jabier Kaltzakortak oraintsu idatzi duen “Dos canciones populares vascas del siglo XIX de Lekeitio” artikuluan, irakurri dugu Juan Bautista Eguzkitzak Julio Urquijori idatzitako karta bat 1921-10-17an. Karta horretan arrantzaleen kantatzeko ohiturez ari zitzaion Eguzkitza Urquijori. Ez du galtzerik: *“La actual generación de arrantzales es mucho menos aficionada a cantos euskéricos que las que le han precedido. Antes los marineros, según me informan los ancianos, solían cantar mucho en tabernas y cafés y también a veces rondando por las calles: hoy discuten a grito pelado en sus tertulias de taberna: pero apenas cantan. Cuando a los mozos les ocurre rondar por las calles, nos regalan los oídos con canciones erdéricas, aprendidas en Castro, Gijón etc. Si alguna vez cantan en euskera, sus canciones suelen ser de las que algún chusco ha compuesto para los días de Carnaval y de la más baja estopa (sic), como esta que le servirá a V. de muestra:*

*Mikela Mikela koxia  
Triniden, Triniden alabia  
Jutxiñek, Jutxiñek ekarrikotso  
Bilbotik, Bilbotik muletia.*

Kanta berori agertu zen Anes Arrindaren “Euskalerrria eta arrantza” liburuan. 1920ko errolda batean aurkitu dugu Micaela cojia, hitz horiekin, Bergara kaleko 28an. 1924ko erroldan Bergara 28 desagertu egiten da, kontixu erre egin zen, baina Micaelaren familia Artxabal kaleko 12an aurkitu dugu, aita Pedro Maria Goitiz Egurennek 80 urte ditu eta alargunduta dago. Ama Trinidad Zendoia eta alaba Micaela falta dira, 1924an bertan hil zen Micaela.

Gustu txarreko kantak zirela dio Eguzkitzak, gehienetan jende umilaren kontura barre egiteko idatzitakoak gehituko genuke, baina gure ondarearen parte dira. Eguzkitza arduratuta zegoen bere ustez euskaraz gutxi kantatzen zelako eta gainera gustu txarreko kantak. 1921a zen hori idatzi zenean, igual geroago asmatuko ziren kantak gustukoak izango zituen.

Ez dakigu askorik Lekeitioko kantez, letrak eta doinuak bakarrik gehienetan; ez noizkoak diren, ez norik asmatutakoak, zergatik... Sanpedropeko kanta, berriz, badakigu noiz asmatu zen eta autoreari dagokionez badugu momentuz frogatu ezin dugun hipotesia.

Abestian esaten dena analizatuko dugu.

Baporarekin hasiko gara, Askatasun baporarekin. 1924an Luis Jauregik koinatu Antonio Atxurrearekin batera erosi zuenean Azkartasuna izena jarri zion. 1931an izena aldatu zion Azkartasuna jarritz Diktadura luzea amaitu zelako eta Errepublikak ametsak piztu zituelako. Baina askatasunak gutxi iraun zuen, Franco eta jarraitzaileak Errepublikaren

kontra altxatu ziren, Altxamendu nazionala. Jauregik frankistengandik alde egin behar izan zuen eta Iparraldera joan zen Azkartasuna baporean. 1940an Santa Teresa izena jarritz Lekeitiora bueltatu zen bapora. Handik urte batzuetara, 1945ean Galiziara saldu zuten, baina, antza, Donibane Lohizunen amaitu zuen bere ibilbidea. GOIAN BEGO

Prieto abizeneko alkaterik ez genuen sekula izan, orduko alkatea Carlos García Cortés deitzen zen (1930-6-27/1931-4-15). Baliteke gure autoreak buruan Manuel Garcia Prieto politikaria izatea, Garcia biak...; egia esan, ez dakigu zergatia. Agustintxugaz, berriz, ez daukagu arazorik; Agustín Zabala kontzejalak alkatea zoratu zuen, baita aurretik egon zena ere, Pablo Beitia. Orduko udalbatzak espektakulu bihurtu zituen Agustintxuk, baliteke abestiak zeharka momentu horiek aipatzea.

Alguazilak, eskarmentu handikoak, Antolin Zapirain eta Juan Piñel ziren eta Rebeca zuten kartzelan. Ez dakigu zer egin zuen harek kartzelan amaitzeko, baina zeozer badakigu haren identitateari buruz. Ez zen emakumezkoa, gizonzkoa baino eta egun santu osoa pasatzen zuen *Rebeca de mi vida no llores por mí* kantatzen. Detektibeak kontratatu ditugu izen abizenak aurkitzeko baina...

Azkenik autoretza eta dataziora heldu gara. Datatzea ez da gaitza, agertzen diren pertsonak erraztuten dute baina zehatzak izan nahi dugu. 1931-7-10ean Eusebio Erkiagak bidalitako kronika batean aipatzen da kanta<sup>1</sup>, eta badirudi *antxoba bixi bixijeee, arrain fresku ederre zela!* orduantxe asmatuakoa. Egilea ere ezagutzen dugu, Errupa gutxi zuden Lekeition orduan, burura datorkigun bakarra Rufo Atxurra da. Baina izurra izurtuz konturatu gara Agustintxu eta Prietoren sasoiaren Azkartasuna bapora oraindik Azkartasuna deitzen zela (izenaren aldaketa 1931-7-11an gertatu zen), beraz ez dugu uste txarto gabiltzanik esaten badugu letra originalean atsoak Azkartasun baporean zebiltzala despiskan.

“Kantak atarakotsue” esaten da oraindik Lekeition, baina aspaldiko kontuak dira horiek!

<sup>1</sup> Euzkadi, 1931-7-10

Errijetatik-Lekeitiotik

Abesti guztijak ixentautera ez nua, ba asko ziran-ta; baña bai orraitino axe ain atsegin ixan yakena lenengoz entzun ebenai.

Lekeitio'ko

San Pedro'peko...

Artu ene Errupa, neure zorijon-agurra ta ekin olako abesti politak asmetan